

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Andoni Alvarezen lehen egunak alkatetzan

Sailez sail dabil egunotan, gobernukideekin batera, aurkezpena egiten. Dagoeneko alkatetzaren bulegoan da, lanean / 6

Jorge Segurado, alkate

Agintean jarraituko du, beste lau urtez. PSE-EErekin izango duen lotura zehazteke dago / 4-5

San Juan jaiak ganean dira. Egitaraua eta protagonistak, luze eta zabal / 7-13

Azken urteotan bezala, San Juan bezperako sua ospakizun bilakatuko da Urnietan / 14

HELDUENTZAKO IPUIN KONTALARIA		FAMILIENTZAKO IPUIN KONTALARIAK		ANO BETE JOLAS	
ekainak 28 asteazkena DORLETA KORTAZAR	80 AMANDRE 20:00 Goiburuko plazan Izen-ematea	uztailak 04 asteartea JUAN KRUZ IGERABIDE	LAMIAK LEITZARANEN 17:30 Leitzaran Bisitarien Etxea (Otieta) Izen-ematea	uztailak 05 asteazkena KONTALARI2	ANO BETE JOLAS 18:00 Sorabilla Izen-ematea
DOAKO autobus zerbitzua egongo da: ekitaldi hosi baino 30' lehenago aterako da Makaldegitik. Aurretik izena ematen baduzu, hobe, baina bestela ere ETOH ZAITEZKE! 					



EH Bilduko zortzi zinegotziak, Andoni Alvarez alkateak aginte-makila eskuan duen bitartean. AIURRI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Adineko mahaia osatu zuten Elkarrekin Podemoseko Pepe Iparragirrek eta EAJ-PNVko Idoia Mikelezek. Zinegotziek zinpeko aitortza egin behar izan zuten, alkatearen hautaketari ekin aurretik. EH Bilduko zinegotziek "Legeak hala behartuta hitz ematen dut" esamoldearen alde egin zuten. PSE-EEkoek, "Bai, hitza ematen dut", adierazi zuten. "Halaberrez hitza ematen dut", aldiz, izan zen jeltzaleek eta Elkarrekin Podemoseko hautagaiak erabili zuten esaldia. Segidan, alkate izendatzeko prozedurari ekin zioten. Andoni Alvarezk eta Maider Lainezek beren hautagaitzari eutsi zioten, eta Imanol Goenagak eta Pepe Iparragirrek eurena aurkezteari uko egin zioten. Beraz, alkatezta noren esku geratu erabaki behar zen. Nahiz eta argi zegoen, aurreko egunetako hitzarmenei esker. Halere,


Abiatu da Andoni Alvarezzen eta EH Bilduren aroa

Ekainaren 17a iritsi aurretik argitu ziren gauzak, eta ezustekorik ez zen izan udal korporazio berria osatzeko plenoan. Jende asko hurbildu zen, gehien-gehienak alkate berriaren alde txalo egiteko

hamazazpi zinegotziek eman zuten bozka. Honako haxe izan zen emaitza, isilpeko botoa eman ostean:

9 boto Andoni Alvarez (EH Bildurenak eta Ekarrekin Podemosekoa).
5 boto Maider Lainez (PSE-EEkoak).
3 boto Zuri (EAJ-PNVkoak).

Zinegotzien legezko gehiengo osoa lortu zuenez, EH Bilduko Andoni Alvarez zen, une horretan, alkate. Izendapena onartu zuen, eta, jarraian, aginte-makila jaso zuen aurreko alkate Maider Lainezen eskutik. Txalo zaparrada iritsi zen, orduan. Alkate berriak aginte-makila altxa eta bertan zirenei eskaini zien, hainbat segunduz. Gauza bera egin zuen, beranduago, herriko plazara irten zenean. Kanpoan ere jende asko zain zegoen, txalo egiteko prest.



Ekainak 17, larunbata

UDAL KORPORAZIO BERRIEN OSAKETA

Jarraipena AIURRI.EUS gunean: kronikak, argazkiak, bideoak



Andoni Alvarez Lete, aginte-makila eskuan. AIURRI

Alkatearen lehen hitzak

"Ez da diskurtso politiko luzeak egiteko eguna, egon da denbora horretarako, eta egongo dira aukerak, aurrerantzean ere. Gaurkoan zuei denei eskerrak emateko aukera baliatu nahi dut. Etxekoei, beraiei nahi beste denbora ez eskaintzeagatik eta ulerkorrak izateagatik eskerak eman nahi dizkiet, lagunei, beti hor egoteagatik, eta, nola ez, gaur hemen alkate-makila eskuartearen hartzeko, gogotik lan egin duzuen guztiei. Abiatzen dugun bide berria zuei guztiei esker da. Gaurtik aurrera, esku artean dudan erronka, orain

artekoen artean, ardura gehien sortarazten didana da. Erantzukizun osoz hartzen dut ardura. Eta, gure herriak dituen erronken tamainen jakitun naizen aldetik, errespetuz baina ilusioz hartzen dut ardura.

Eskerrak eman nahi dizkiot Elkarrekin-Podemoseko zinegotzi den Pepe Iparragirrerri, azken aste hauetako negoziaketetan izandako jarreragatik. Orain arte izandako elkar ulertzea, izan dadila elkarlan emankor baterako abiapuntu.

Eskerrak eman nahi dizkiet, baita ere, orain arte udal gobernuan egon diren PSE-EE eta

EAJ-PNV alderdiei. Gure ardura eta gure helburua herritar guztien iritzia eta begirada kontuan hartzea izango da. Horretarako alderdi guztiekin elkarlanean aritzen saiatuko naiz. Lehen esan bezala, Andoainek erronka handiak ditu begi bistan, eta horiei aurre egiteko akordio zabalak lortzen saiatuko gara. Herri elkarte eta herritarrei ere orain arte esandako gauza bera esan nahi diet. Ez dut herritarrengandik urrun lan egingo duen alkatetza ereduetan sinisten. Orain arteko hurbiltasun berarekin lan egiten jarraituko dugu".



Kanpoan jende asko zegoen zain. AIURRI

Adierazpenak



Maidera Lainez, alderdikideen alboan. AIURRI

Maidera Lainez, PSE-EE Agurra emateko aukera baliatu zuen Lainezek: "Urte gogorak bizi izan arren, Andoain elkarrekin aurrera eramatea lortu dugu. Esker oneko hitzak ditut zuentzat, guztientzat. Bizipen ahaztezinak eramaten ditut nirekin".



Imanol Goenaga eta, bere alboan, Txixtu Ruiz. AIURRI

Imanol Goenaga, EAJ-PNV "Herritarrena da erabakia. Gobernu talde aldaketarekin etapa berria hasten da Andoainen. Jeltzaleok aberrigintzan jarraituko dugu. Behar denean, zorrotz. Eta, Andoainen aldeko politikak sustatzen direnean, eskuak luzatuz".



Pepe Iparragirre, Elkarrekin Podemoseko kideekin batera. AIURRI

Pepe Iparragirre, Elkarrekin Podemos "Lau urteko erronka zailari hasiera emango diogu. Maila ematea espero dut. Zabaltasunez jokatu dudala esan dezaket. Zorte on guztioi. Aurrerantzean udalbatzako kideok maizago ikusiko dugu elkar".



Udalbatzako kideak, kargua hartu berrian. AIURRI

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Joan den larunbatean, hilaren 17an, ziklo politiko berriari ekin zitzaion Urnietan, Euskal Herriko gainerako udalerrietan bezala. Hala, maiatzaren 28ko hauteskundeen emaitzei begira jarrita, udalbatza berriaren osaketa-ekitaldia izan zen udal-etxean, eguerdiko 12:30ean. Bertan, aginte-makila hartu zuen Jorge Seguradok, hainbat urnietar lekuko zirela, eta datozten lau urteetan ordezkari izango diren kideak mahaiaren bueltan bilduta zirela; hori horrela, EAJ-PNVk beste lau urtez eutsiko dio alkatetzari, gehiengo osorik izango ez badu ere.

Idazkariak eman zion hasiera hitzorduari eta adin-mahaia osatu zen, lehenik eta behin. Ekitaldian agertutako hautetsi zaharrena eta gazteena zehaztu ziren: Maria Angeles Lasarte Elizegi eta Xabier Olanar Martin. Zinegotzien izendapen-agiariak dagokien forman aurkeztu eta gero, indarrean dagoen araudiak jarraituta, banan-banan, ordezkari guztiek hitz eman zuten, "kontzientzia eta ohorea-

Jorge Segurado jeltzaleak eskuratu du aginte-makila

Aurreko agintaldiaren erdian, Mikel Pagolaren lekukoa hartu zuen alkatetzan. Oraingoan, hauteskundeak irabazi ostean, aginte-makila hartu du. Gainerako udalerrietan bezala, joan den larunbatean udaletxean egin zen kargu-hartze ekitaldia

gatik" edo "legeak hala behartuta", zintzo beteko dituztela zinegotzi karguak berekin dartzan betebeharrak.

Behin korporazioa eratuta, bide eman zitzaion alkatearen hautaketari. Hermenegildo Gonzalez Moranek ez zuen bere

burua alkatetzara aurkeztu, EAJ-PNV alderdiarekin egindako adostasuna medio: "Bakarmena eskatzen diet gu bozkatu

gaituztenoi", adierazi zuen Gonzalezek. Ondorioz, alkatetzarako bi hautagaien artean egon zen aukeraketa: Eukeni Garmendia Martinez eta Jorge Segurado Iriondo. Isilpeko bozketa egitea erabaki zen, aho batez, eta honakoa hau izan zen emaitza: sei bozka, Jorge Seguradoren alde; bost bozka, Eukeni Garmendiaren alde; bi bozka zurian.

Horrenbestez, Jorge Segurado izango da alkate Urnietan zuzenekoan, kargu-hartze ekitaldian hitza hala eman ostean. Lehengo, aginte-makila jaso zuen, Maria Angeles Iriondo bere amaren eskutik (Seguradok Mikel Pagolari hartu zion lekukoa agintaldi erdian, joan den zikloan) joan den larunbatean. Jarraian, hitza hartu zuten hiru zerrendaburuek.

Horme Gonzalez, PSOE-EE

Hauteskunde egunean, PSOE-EE alderdiaren alde bozkatu zutenei eskerrak emanez hartu zuen hitza Gonzalezek, baita babesa erakutsi dieten senitarteko eta lagunei ere. Era berean, alkatea eta zinegotziak zoriondu zituen,



Jorge Segurado. AIURRI

batez ere, kargua lehenengo hartu duten horietan ipini zuen begirada. Halaber, emaitzak ikusita, taldean hausnarketa egin behar dutela adierazi zuen, besteak beste, harrituta gelditu baitzen abstentzio-mailarekin (% 46,33). Dena dela, lanean jarraituko dutela jakinarazi zuen: “Harro gaude, herritarrek hautestontzietan hitz egin dutelako, eta, gure ustez, gehiengo absolutu gehiagorik ez dagoelako. Orain, ados jarri, parte-hartze handiagoa eman, erantzukizunak eskuordetu eta, batez ere, Urnietako Udalarari egonkortasuna eman behar zaio”. EAJ-PNV eta PSOE-EE alderdiek lortutako akordioan oinarrituta, harremana mantenduko dute aurrerantzean Seguradore taldearekin: “Tinko adierazi nahi dugu gure konpromisoa, jarrera eraitzailea eta elkarrizketarako borondatea”.



Herme Gonzalez. AIURRI

Eukeni Garmendia, EH Bildu
Zorion hitzak zuzendu zizkion alkateari EH Bilduko zerrendaburuak. Era berean, zinegotziak eta herria bera ere gogoan izan zituen, hauteskundeetan beren alderdiaren aldeko apustua egin zutenei esker ona adieraztearekin batera: “Herriaren ongizatearen bidean ibiliko gara, Urnietarentzat onena dena bilatuz, gure proiektu aurrerakoia, independentista, feminista eta euskaltzalea herrira ekartzeko”.

Jorge Segurado, EAJ-PNV

“Eskerrak ematen dizkiet maiztaren 28an bozkatzera gerturatu zirenei, eta, batez ere, EAJ-PNV alderdiaren alde egin zutenei”, hasi zuen hitzartzea alkateak. Modu berean, oso eskertuta agertu zen zerrenda osatu duten kide guztiarekin, etxekoekin eta alderdikideekin. Hauteskundeetan egondako parte-har-



Eukeni Garmendia. AIURRI

tze txikiarekin kezka erakutsi zuen alkateak. Hori esanda, urnietar gisa, harrotasun handiz hartu zuen aginte-makila: “Gobernatzeko konpromisoa hartzen dut, Urnietako herriaren onura eta hobekuntza bilatuz. Hemen, EH Bilduri zein PSE-EEri eskatu nahi diet gaur hasten den legegintzaldia elkarrizketatik, errespetutik eta armoniatik igaro dadila”. Horretarako, eskua luzatu zien bi alderdiei, “nire atea beti egongo da irekita edozein gai lantzeko eta adosteko. Udaleko erabaki-organo guztietan aktiboki parte hartzera gonbidatzen zaituztet, adostasun handiago eta ikuspuntu pluralagoa lortzeko”. PSE-EEko kideei zuzendu zitzaizkien, gero: “Lan egingo dut gobernu sendo eta egonkor bat lortzeko legegintzaldi honetan. Aldi emankorra eta guztiontzat aberasgarria izatea da helburua”.



AIURRI

Hamahirutik zortzi zinegotzi berri

EH Bilduko udal taldea da gehien aldatu dena, bostak baitira berriak. Aldaketa sakona, beraz, oposizioko lehen alderdian. Kontrakoa gertatzen da sozialisten kasuan. Bi ordezkariak karguan errepikatuko dute. Urnietako EAJ-PNVn, talde erdia aldatu dute. Korporaziokideak:

Jorge Segurado, Agurtzane Mercader, Ana Pozas, Ainhoa Ostolaza, Mikel Martiarena, Mikel Artola, Eukeni Garmendia, Maria Angeles Lasarte, Xabier Olan, Nagore Brel, Ramon Urdangarin, Herme Gonzalez eta Consuelo Frutos.

Kargu hartze ekitaldiko irudiak



Maria Anjeles ama eta semea, biak pozarren, aginte-makila eskuetan. AIURRI

Amaren eskutik jaso zuen aginte-makila Aginte-makila jasotzeko unea berezia da, hartzailearentzat. Kasu honetan, gainera, polita izan zen amaren eskutik jaso zuelako. Iraganean amak zinegotzi jardun zuelako. Egur bereko ezpalak, beraz, biak.



Pleno aretora herrikide ugari hurbildu zen. AIURRI

Etxekoak, lagunak eta alderdikideak Hiru familia politikoetako kideak elkartu ziren, pleno aretoan. Korporaziokideen alderdikideak, senideak eta lagunak ikus zitezkeen pleno aretoan, ikusleen artean.



Larunbat eguerdiko plenoa. AIURRI

Pleno osoa ikusgai Pleno osoa Urnieta.eus gunean ikus daiteke, eta baita Urnietako Udaleko youtube tartean. Aiurri.eus webgunean ekitaldiko argazkiak eta bideoak ikus daitezke, une esanguratsuenekin.



Andoni Alvarez Lete, Andoaingo alkatea. AIURRI

"Sailez sail gabiltza bilerak egiten"

ANDONI ALVAREZ LETE ANDOAINGO ALKATEA

Joan den larunbatean ospatutako udalbatzan, aginte-makila hartu berritan, "egokitzea" da Andoni Alvarezek erabili zuen hitza, nagusiki

Xabier Lasa ANDOAIN

Nolakoak izaten ari dira lehenengo egunak?

Lehen egun hauetan egokitzen ari gara. Alde batetik, hiru zinegotzi gaude aurreko legealditik gatozenak; oposizio lanetan aritu izan gara, eta jakitun gara desberdina dela gobernuan aritzea. Bestetik, berriak dira uda-

letxeko egunerokotasunean lanean ariko diren hiru zinegotzi. Hortaz, pixkanaka ari gara sailez sail bilerak egiten eta udal langileak direnak eta lankideak izango direnak ezagutzen... Lur hartzen eta egokitzen ari gara, baina, jakina, albo batera utzi gabe nahitaez egin behar diren urgetziazko gaiak.

Alkatea zarela barneratu al duzu?

Egokitzen ari naizela esango nuke. Larunbatean baino egokitua, baina, hilabete barru baino oraindik ere gutxiago.

Maiatzaren 28aren ostean, herritar ugari hurbildu zitzaizun zoriontzera. Egunotan?

Jendea hurbiltze kontu horretan, hiru fase bereiziko nituzke.

Maiatzaren 28aren ostean, jende askok zoriondu ninduen ni, eta zoriondu zuen udal taldea. Hurrengo egunetan, herrikide ugari kezkatu etorri zitzaizkidan, etorkizun hurbilean gerta zitekeenagatik. Eta, azkenik, larunbateko aldaketa saioaren ostean, berriro ari zaigu jende asko zoriontzen. Gaur goizean, udal-leterako bidean, adibidez, jendea asmo berberarekin hurbildu zait. Badirudi Sanjuanak igaro arte iraungo duela zorionak jasotzeko aldia.

Sanjuanak aipatu dituzu. Herritarrei zer mezu edo gomendio luzatuko zenieke, herriko jaiak hastear direnean?

Lehenengo eta behin, San Juan jaiak posible egiten duten herriko kirol eta kultur elkarteei eta herritarrei eskerrak eman nahi nizkieke.

Gizarte mugimenduetan eta kirol elkarteetan ibili garenok badakigu zenbat kostatzen den halako eginbeharretan murgiltzea.

Horrez gain, herritarrei esango nieke goza dezatela herriko jaiekin. Saia gaitzen guztion artean festak politak izan daitezen, liskar eta erasorik gabekoak.



Joseba Poza Aranzadi. AIURRI

Ruizek hartu du Pozaren zinegotzi-kargua

Alderdi jeltzalean aldaketa eman da zinegotzi-kargua hartzeko orduan. Ruizek jarraituko du, udaletxean

Erredakzioa ANDOAIN

Maiatzaren 28ko emaitzen ondoren, EAJ-PNV alderdiak hiru zinegotzi eskuratu zituen. Horren arabera, eta hauteskundeetara aurkeztutako zerrendari errepertatuta, jeltzaleen ordezkariak dira Imanol Goenaga, Idoia Mikelez eta Joseba Poza. Ekainaren 17ra bitarteko egunetan, ordea, akreditazio epea martxan jarztearekin batera, aldaketa bat eman da jeltzaleen artean. Zerrendan laugarren aurkeztu zen Txitxu Ruizek hartu du zinegotzi-akta, Joseba Pozaren ordezkari. Agintaldiaren azken aldera Kultura eta Euskara lantsailen buru izan zen Ruiz.

Gainerako ordezkarien artean ez da aldaketarik izan. Hauexek dira agintaldi berriari ekin dioten zinegotziak:

EH Bildu: Andoni Alvarez (alkatea), Marta Lasa, Xabier Fondon, Garazi Usandizaga, Josu Mateo, Haizea Barandiaran, Diego Barrasa eta Larraitz Arriola.

PSE-EE: Maider Lainez, Jose Luis Verdasco, Ascen Parron, Aritz Alkain eta Maria Belen Moreno.

EAJ-PNV: Imanol Goenaga, Idoia Mikelez eta Txitxu Ruiz.

Elkarrekin Podemos: Pepe Iparragirre.



Urki dantza tadeko kideek emanaldi ikusgarria eskaintzen dute, Goikoplazan. AIURRI

Sua piztearekin batera, has dadila festa!

Ekitaldiz beteriko asteburua izango da, San Juan jaietakoa. Astelehenean eta asteartean hitzordu gehiago iragarrita badaude ere, jaien muina asteburuan aurki daiteke. Eguraldiak lagunduz gero, jaietan kalez kale murgiltzeko aukera izango da

Erredakzioa ANDOAIN

Festazalearentzat atsedetik gabeko asteburua dator, aurretik. Gustu guztiak asetzeko modukoak, gainera. Haur eta gazte txoek maite duten Lebiton konpartsarekin abiatuko dira jaiak. Tradiziozaleentzat, bestalde, ikusmina sortzen duen soka-dantza izango da aurtengoa, udalbatza berriaren lehen saioa izango baita. Txalaparta, dantza eta kanpaien erreplikarekin batera, sua piztuko da. Ordu beretsuan bi musika proposamen ezagun eskainiko dira. Korrontzi, Goikoplazan, eta ETS, Nafarroa plazan. Azken honekin gaztetxo eta guraso asko hurbilduko dira.

San Juan egunean, axerriak kalera irtengo dira. Aurten, gai-

nera, parte-hartze handia izango da. Entseguetan, dozenaka lagun elkartu dira. Herri kirolariak eta bertsolariak San Juan eguneko ezinbesteko hitzorduak izaten dira. Gaez mariatxiak eta Zea Mays talde ezaguna ariko dira.

Igandean, ekainaren 25ean, Kontzejupeko finala, kros mistoa eta junior mailako txirrindulari lasterketa iragarrita daude. Eguna lasai joango da, eta gaez Burrenba elektrotzarangarekin eta Bulego taldearekin biziberrituko da.

Haurren eguna izango da, astelehenekoa. Eta, asteartean, Cavaldeath kalejira piroteknikoarekin amaituko dira jaiak. Dozenaka ekitaldi, beraz, datozen bost egunetan.

Gautxoria eta Puntu Morea

Informazio

Gune Morea

- Pio Baroja kalea, 1B.
- Jubilatuen Egoitza ondoan.
- Ekainak 23 eta 24.
- Orduetgia: 20:00-08:00.
- Telefonoa: 676 567 724.

Gautxoria

BUS zerbitzua

- Ekainak 23, 24 eta 25ean.
- Geldialdiak: Agustin Leitza kaletik abiatuta. Ohiko geltokiak, eta eskatutako lekuak.
- Orduetgia: 00:00-03:30.
- Prezioa: 0,60 euro >4 urte. 0,20 euro jubilatutak.

ANDOAIN GF AKADEMIA

UDAKO IKASTARO TRINKOA

Aprobetxatu ahalik eta gehien zure denbora, gure esperientzia. Hizkuntza maila guztiak prestatzen ditugu.

SAN JUAN JAI ZORIONTSUAK!

943 591 508
688 612 020

@academiagfandoain
www.academiagfandoain.com
Galardi 10, 1-A ANDOAIN

AURTENGO JAI EGITARAUA

EKAINAK 23

OSTIRALA

17:00 Festetako kamixeta tailerra, buztin eta henna tailerrak, Goikoplazan. Eguraldi txarrarekin Gazte Lokalean.

18:00 Sanjuanetako kartel lehiaketako sari banaketa Goikoplazako Frontoian.

18:30 Lebiton buruhandi eta erraldoi konpartsaren irteera. Ibilbidea: Bastero, Goikoplaza, Nafarroa Plaza, Bastero.

18:45 Kalejirak Goikoplazaraino: Txaranga, Trikitilariak, Eskusoinu Taldea.

19:00 Jaien hasierako pregoia Futboleko Euskalduna Andoaindarraren eskutik. Udaletxeko balkoitik, jaien hasierako txupinazoa. Ondoren, Gora Kaletxiki Txaranga Luis Fracaren "Andoain" musika pieza joko du.

19:30 Alberto Agirre Abesbatza eta Udal Musika Eskolako Abesbatza gazte eta helduen kontzertua elizan.

20:00 On Pedro Aizpuruaren Salbe Gorena elizan.

20:15 Alkatetza eta Udalbatzaren Soka-dantza Goikoplazan.

21:00 Pala Jaialdia Arraten: Larruzko paleta eta pala motza.

21:30 Olagain Txistulari Elkartearen kalejira San Juan zortzikoa joz. Ibilbidea: Etxeberrieta, Zumea, Kale Nagusia, Goikoplaza.

22:30 Suziri, Txalaparta eta Kanpai-errepika. San Juan sua. Ondoren, herritarren suaren inguruko dantza eta ohiko emanaldia, Alberto Agirre eta Udal Musika Eskolako Abesbatzak, Udal Musika Eskolako Elkarte, Olagain Txistulari Banda, Urki Dantza Taldea.

22:45 Agustin Leitza elkartearen danborrada.

23:30-01:30 Korrontzi Goikoplazan.

00:00-02:00 En Tol Sarmiento Nafarroa Plazan.

EKAINAK 24

LARUNBATA

09:15 Diana dultzaineroekin.

09:30 Plater tiraketa, Ontza elkarteak antolatua, Arkalen.

10:00 Pilota: Pilota Eskolako umeen eskuzko partidak, Gaztelekuk antolatua, Arraten.



Lebiton buruhandi eta erraldoien konpartsa ostiral arratsaldean abiatuko da, Basterotik. AIURRI

11:00 Meza Nagusia elizan, Alberto Agirre Abesbatzak kantatua.

11:00-13:00 16 urte artekoentzat xake txapelketa, Agustin Leitza Xake Elkarteak antolatua, Goikoplazan. Eguraldi txarrarekin elizaren arkupetan.

12:00 Axeri-dantza, dantza herrikoia Goikoplazan.

12:30 Pilota: Nesken Berria Txapelketako finala Arraten.

12:30-14:30 Txalaparta joaldiak eta tailer ibiltaria, Maizorrik antolatua, Arteta Plazatik abiatuta.

13:30 Andoaingo Udal Musika Eskolako Banda Goikoplazan.

14:30 Txuleta jana, Auzoetako Jai Batzordeak antolatua.

16:00 Zesta puntako jaialdia, Gaztelekuk antolatua, Arraten. Benjaminen kinielak; Alebinen kinielak; Infantilen finala; Jubenilen finala.

17:00 Gauerdi Txarangaren irteera Goikoplazatik abiatuta.

18:00 XXII Bizikleta festa, Andoaingo Txirrindulari Elkarteak antolatua, Goikoplazan. Bakoitzak bere bizikleta eta kaskoa ekarriko ditu. Izen ematea, proba hasi baino 30 minutu lehenago egingo da. Eguraldi txarrarekin Ondarreta Ikastetxeko patioan.

18:30 Herri-kirolak Goikoplazan. Duatloia: Eneko Saralegi – Ugaitz Mugerza. Harrijasotzen: Lur Errekondo – Lierni Osa. Lastoa altxatzen/botatzen: Jose Martin Bustinza (Tubi).

Aizkoran: Iker Vicente eta Eneko Saralegi / Julen Alberdi eta Ugaitz Mugerza. Eguraldi txarrarekin Ondarreta ikastetxean.

19:15 Andoaindarrak Elkartearen danborrada.

20:00 Bertsolari jaialdia Goikoplazan: Saioa Alkaiza, Beñat Gaztelumendi, Joanes Illarregi, Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze. Gaijartzailea: Aritz Eskudero. Eguraldi txarrarekin Ondarretan.

22:30 Zezen-suzkoa Goikoplazan.

23:00-01:00 Mariachi Imperial Goikoplazan.

00:00-02:00 Zea Mays Nafarroa Plazan.



**BAIETZ GABE, EZETZ DA
JAIETAN ERASO SEXISTARIK EZ!!
EZ IZAN KONPLIZE**



ANDOAINGO UDALA

EKAINAK 25

IGANDEA

08:30 Warhammer 40K torneoa, Enderen Jokoak antolatua, Extremadura kalea, 5 Egoitzan.

10:30 MuGaz Taldea eta Azelain Ballet Elkartearen musika eta dantza emanaldia Goikoplazan. Eguraldi txarrarekin La Sallen.

11:00 Kross Mistoa, Nerea Fernandez oroimenez, Zumeatarrak antolatua. Irteera eta helmuga: Pio Baroja kalea. Ibilbidea: 5 kilometro. Sari banaketa Goikoplazan.

11:00-14:00 Artisautza feria eta janari azoka Goikoplazan. Ataungo talogileak. Eguraldi txarrarekin Ondarreta Ikastetxeko patioan.

12:00 Olagain txistulariak Goikoplazan.

13:00 Kontsejupeko Pilota Txapelketaren finalak, Gaztelekuk antolatua.

13:15 Kantu kalejira txalapartaz lagunduta ibiliko da kalez-kale Goikoplazatik abiatuta, Irunberri eta Maizorrik antolatua.

16:00 Junior mailako Gipuzkoako Itzuliko 3. etaparen irteera Goikoplazatik.



Klaap dantza akademia. AIURRI



Bakartxo & Joseba akademiakoen emanaldia. AIURRI

Artisautza feria eta janari azoka Goikoplazan. Ataungo talogileak. Euriarekin Ondarretan.

18:15 Gipuzkoako Itzuliko 3. etaparen helmuga Goikoplazan.

22:00 Burrumba elektrotzaranga Zumea plazatik abiatuta.

22:30 Caballer piroteknia.

22:45 Burrumba Goikoplazaraino.

23:30 Bulego Nafarroa Plazan.

EKAINAK 26

ASTELEHENA

11:30-13:30 / 17:00-19:30 Hour parkea Goikoplazan: Jokoak, puzgarriak. Euriarekin Ondarretan.

18:00 Hour danborrada. Alkate Txikia eta herriko ordezkariak buru izango direlarik. Ibilbidea: Zumea, Kaleberria, Kale Nagusia eta Goikoplaza.

19:00 Ismeder DJ, Goikoplazan.

20:00 Gora Kaletxiki Txaranga.

24:00 Michael Jackson ikuskizuna Nafarroa Plazan.

22:30 Zezen-suzkoa Goikoplazan.

EKAINAK 27

ASTEARTEA

13:30 Agintarien harrera adinekoei udaletxearen aurrean. Ondoren, trikitilarekin batera Basteroraino.

14:00 Laurogei urtekoen bazkaria.

17:30 Klaap Goikoplazan.

18:15 Fit Gipsy Zuenak antolatua, Goikoplazan. Euriarekin Ondarretan.

19:00 Bakartxo & Joseba emanaldia Goikoplazan.

20:00 "Yijaaa!!!" kale antzerkia Goikoplazan. Euriarekin Ondarretan.

22:30 "Cavaldeath" Juanita Alkain Plazatik abiatuta.



andoaINDARRA
euskaraz

arruti **Enkarguak jasotzen ditugu**
943-593 777
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
Zumea 18, ANDOAIN





Joanes Illarregi, Bertsolari Txapelketako finalean. BERTSOZALE

Joanes Illarregi, Andoainera lotuta dagoen bertsolaria

Leitzan jaioa, Josune Marzol Ormazabal andoaindarraren semea da

Erredakzioa ANDOAIN

Joanes Illarregi (Leitza, 1999) eta Xabat Illarregi (Leitza, 2001), nor baino nor gazteagoa, 2019ko Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalean aritu ziren. Geroztik, ezagun egin dira, eta eskarmen-tua pilotzen ari dira han eta hemengo plazatan kantari arituz. Sustraiak Andoainen dituzte. Ama bertakoa baitute, Josune Marzol Ormazabal, hain zuzen.

Biak ere 2022ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian protagonista bilakatu ziren. Xabatek txapelketako lehen saioan abestu zuen, azken orduan Xabier Silveira ordezkatu behar izan zuelako. Anaiarekin batera abestu zuen, gainera. Kanporaketa hartan Joanes izan zen onena. Xabat laugarren sailkatu zen. Anaia zaharrenak, Joanesek, Arrasaten hasi eta Nafarroa Arenaraino jarraitu zuen lehian. Ia hiru hilabeteko ibilbidea, ho-

rrenbestez, finalera iritsi bitarte. Final hartan bertsolagun izan zituen Beñat Gaztelumendi, Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze San Juan jaietan kantuan ariko dira. Saioa osatuko dute Saioa Alkaiza Nafarroako Bertsolari Txapelketako azken irabazleak eta Ane Labaka lasartearrak. Gai-jartzaile lanetan, Aritz Eskudero ariko da.



Xabat, Joanesen anaia. AIURRI



Iker Vicente. AIURRI

Iker Vicente goi mailako kirolariaren erakustaldia

Iker Vicente eta Eneko Saralegi aizkoran ariko dira, Julen Alberdiren eta Ugaitz Mugerzaren aurka

Erredakzioa ANDOAIN

Goi mailako kirolaria da Iker Vicente. 26 urteko gaztea da, eta etorkizun oparoa du oraindik. Historiako txapeldun gazteena da otsagierra. Nafarroakoa 18 urterekin lortu zuen, eta, 22 urterekin, Euskal Herrikoa. Munduko txapeldun-ordea da, lorpen hori lortu duen europar kirolari bakarra izanik. Bi hilabete atzera lortu zuen, Australiako Munduko Txapelketako abiadura modalitatean. Etxetik datorkio kirolarekiko trebezia. Izan ere, Daniel Vicente aizkolariaren eta Maribi Saralegi herri kirol munduari oso lotuta dagoen Leitzako Saralegi familiaren semea da.



AIURRI

Nerea haurra gogoan

Zumeatarra kirol elkarteak ideia zoragarria izan du, korrikalarien eta andoaindarren txaloa merezi duena. Nerea Fernandez haurrak gurpildun-aulkian parte hartu ohi zuen kros mistoan, aitarekin batera. Duela bi urte zendu zen, eta antolatzaileek lasterketari haurraren izena ipini diote. Hunkituta eta eskertuta daude etxeok, antolatzaileen erabakiarekin.



AIURRI

Igandean, Kontzejupeko finala

Urtero lez, udaletxe azpiko frontoian 3. eta 4. postuen partida eta finala jokatuko dira. Ikusmira handia izan ohi da, izan ere, jokamolde bizia eta ez-ohikoa da; horrez gain, pilota maila altuaz gozatzeko aukera edukiko dute ikusleek, antolatzaileak, Gazteleku Pilota Eskolakoak baitira. Norgehiagokak igandean izango dira, eguerdiko 13:00tan.



AITA LARRAMENDI IKASTOLA

Txistoki pasealekua, z/g
20140 - Andoain
Tel.: 943 593 525
andoain@ikastola.eus
www.andoainikastola.eus



ikastolen elkartea



*San Joanetan,
mingaina euskaraz jarri dantzari.*



Xarna Andoain

GORA SANJUANAK!

Goikoplaza, 8-behea
ANDOAIN. 943 327 726



Mariatxiak, arrakasta ziurra

Zer du Mexikon sorburu duen musika estiloak, hain erakargarri izaten jarraitzeko? Latino izaerak izango du zerikusia, ziurrenik. Euskal Herrian mariatxiak oso gogoko izaten ditu jendeak, eta ,musikaren historia garaikidean, ez dira estilo hori ardatz duten taldeak falta. Kantuan eta dantzan aritzeko aukera paregabea izango da ekainaren 24an, 23:00tan hasita.



Michael Jackson gogoan

Kantari handiek itzal luzea utzi dute, eta urteak aurrera joan ahala, musikalen bitartez biziberritzeko joera izaten da. Iaz, esaterako, Queen taldea biziberritu zuen ikuskizuna ikusi ahal izan zen Andoaingo jaietan. Aurtengoan, mundu mailan disko gehien saldu dituen artistaren txanda izango da. Michael Jacksonena, hain zuzen. Ekainaren 26an izango da.

Txistularien emanaldi berezia, igandean

Goikoplazan hasiko da, eguerdiko 12:00tan. Gonbidatuak ez dira faltako

Erredakzioa ANDOAIN

Tradizioak pisu handia du herriko jaietan, eta txistularien emanaldiari balio handia ematen diote andoaindar askok. Mimos landutako ikuskizuna izango da, azken urteotan ohitu gaituzten moduan. Datorren igandean, ekainaren 25an, Andoaingo Olagain Udal Txistulari Elkarteak kontzertua eskainiko du Andoaingo Goikoplazan. Eguerdiko 12:00tan hasiko da emanaldia. Honako hauxe da eskainiko duten kantutegia: *Brokolo; Ana Mari; Itsasoa gara; Durangaldeko dantzari dantza; Adimenez; Iluntzean; Iribaseko ingurutxo; Primaderako liliak; Zurekin batera; Maite zaitut.*

Parte-hartzaileak

Olagain Udal Txistulari Elkarteak kideak ez dira bakarrik ariko. Lagun askorekin batera ariko dira, zuzenean.

- Pianoa: Esti Sistiaga.
- Kaxoia: Txomin Urdanpilleta.
- Gitarra: Javi Gestoso.
- Baxua: Joxema Setien.
- Trikitixa: Leire Esnaola.
- Abeslaria: Rebeca Gestoso.
- Tronpetak: Aingeru Zabala / Edorta Setien.
- Aurkezlea: Ainhoa Aiertza.
- Urki Dantza Taldea.



AIURRI

Zezen suzkoa, jaietan birritan

Lebiton Buruhandi eta Erraldoien Konpartsak parte-hartze handia du San Juan jaietan. Ostiral arratsaldean, kalejira irtengo dira, eta, hurrengo egunetan, haietako batzuk zezen-suzkoa eramaten ibiliko dira. Larunbat gauean (ekainak 24), eta, astelehen gauean (ekainak 26), zezen-suzkoak haur askoren emozioak dantzan jarriko ditu.



SCURASPLATS

Kalejira ikusgarria, jaien amaieran

Scura Splats konpainiak diziplina artistiko desberdinak txertatu ditu bere emanaldietan, hala nola, dantza, zirkua, musika eta piroteknia. Emanaldi ikusgarri horrekin amaiera ematen zaio jaiari, Andoainen. Astearte gauan izango da, gaueko 22:30ean hasita. Juanita Alkain plazatxoan hasiko da eta, Basteron geldialdia egin ondoren, Goikoplazan amaituko da ikuskizuna.

Tolkien, ingelesaren sinonimo Andoainen



Cambridgeko azterketen prestakuntzarako zentro homologatua.

Prestakuntza trinkoa: Cambridgeko azterketak ekainean eta uztailean.

2023-24 ikasturterako matrikulazioa zabalik

Ondarreta 7, behea. ANDOAIN. 943 300 839. Gora Sanjuanak!
688 763 570. www.andoainenglish.com

GBRIKO GOROS
Gora Sanjuanak!



GOROSTIDI Burdindegia
Kale Nagusia, 3
Andoain
620 881 472



www.brikogoros.com



En Tol Sarmiento. ETS



Zea Mays. ZEAMAYS



Bulego. BULEGO

Musika eskaintza erakargarria jaietan

Aurtengoan, Zea Mays, En Tol Sarmiento eta Bulego talde ezagunak izango dira Nafarroa Plazako oholztan. Ikusmira handia sortzen du, izan ere, azken urteetan, zer esan handia eman duten hiru talde dira

Mikel Arberas ANDOAIN

Jaietako lehen egunetik, talde bikainez gozatzeko aukera edukiko dute andoaindarrek zein bertaratuko diren zaleek. En Tol Sarmiento talde arabarra izango da hiru talde ezagunetatik lehena, zeinak, azken urteetan, hainbat kantekin lortutako zabalakundea medio, panorama musikaleko talde preziatuene-

takoa bilakatu den. Hauek, Ska eta Rock musika estiloa oinarri, zazpi diska osatu dituzte eta, beste hainbeste kolaborazio egin dituzte. Esaterako, nork ez ditu ezagutzen "Ametsetan" edota "Musikaren Doinua" kanta ezagunak? Bada, Guretzat Tour bira musikaren barneko kontzertua izango da ostiralean eskainiko dutena.

Larunbatean ere musikazaleek ez dute aspertzeko astirik izango. Aiora Renteriaren Zea Mays talde handiak Nafarroa plaza beteko baitu. 1997an sortu zen musika banda Euskal Herriko talderik esanguratsuenetakoa bilakatu da; kantu feministak, aldarrikatzaileak eta inklusiboak oinarri, euskaldunak mugiarazi ditu urte askotan. "Negua Joan

Da Ta" zeinu interpretariaren laguntzarekin, Kuketza gaztetxea eraitsi zuteneko inpotenziari doinua jarri zioetenekoa edota Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin entzuleak elektrifikatu zituenekoa, beste batzuen artean.

Eta bi kontzertuz horiekin nahiko ez eta, Bulego taldea izango da Nafarroa plazan, igande gauean. Denbora gutxian, protagonismo handia hartu duen talde azkoitiarrak, Tomas Lizarazu abeslariaren gidaritzapean POP musika oinarri hartuta plaza dantzan jarriko du. Taldea 2019an sortu zen arren, ibilbide oparoa

edukitzen ari da "Bueltan Da" edota "Ezer Ez Da Berdina" kantuekin. Beraz, herritarrek, musikazaleek eta parrandazaleek ez dute aitzakiarik, egunero, goimailako musika talde euskaldunenez gozatzeko.

Goikoplaza ere musikaren erakusleihu

Ostiralean, Goikoplazan Korrontziren emanaldia entzuteko aukera egongo da 23:30etik 13:30era bitarte. Larunbatean, doinu mexikarrek plaza alaituko dute. Eta, astelehen gauean, Michael Jackson gogoan hartuko dute.

MUSIKA ESKAINTZA ZABALA NAFARROA PLAZAN: ZEA MAYS, BULEGO ETA EN TOL SARMIENTO

GOIKOPLAZAN ERE MUSIKA EMANALDIEZ GOZATZEKO AUKERA EGONGO DA AURTENGO JAIETAN

S2 SALKIN bertatik bertara

Ilusioz hartuko zaituztegu Salkineko komertzio eta ostalaritzan.

Gora San Juan jaiak

FRANCISCO MENDIKUTE

HARATEGIA - URDAITEGIA

- Esne produktuak, hautatutako kontserbak eta kalitatezko okela.
- Euskal Herriko produktuetan oinarritua.

Kaletxiki, 15
☎ 943 590 258 ANDOAIN

ELIZONDO

FERRERIA TABERNA

CORX SANJUANAK!

La Salle etorbidea, 1- Andoain

Ferreteria 943 590 302

Taberna 943 592 802



Axeriak dorreak osatzen Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian, Izaskun Beraza kapitainaren begiradapean. AIURRI



Perra jartzearen jokoa, batzuk perratzaile eta besteak abre paperean. AIURRI

Axeri Dantza, inoizko jendetsuena

Sekula izan den Axeri Dantzarik parte-hartzaileena izango da aurtengoa, izan ere, ia 80 axeri dantzari plazaratuko baitira blusa gorria jantzita. Kolore gorria nagusi izango da Goikoplaza guztian, eta besteak beste, bost giza-dorre osatuko dituzte

Xabier Lasa ANDOAIN

Dantzariak gogotsu aritu dira Ondarretako ikastetxeko jolaslekuan aurreko egunetan egin diren entseguetan. Ohartuta daude historikoa izango dela, eta arduratsu ibili dira Axeri Dantza osatzen duten zazpi jokoa eta ondorengo Soka Dantza ahalik eta hobekien egiteko. Egin-kizun horretarako, ezinbesteko

izango dituzte Olagain Udal Txistulari elkarteko kideek zabalduko dituzten doinuak. Larunbatean saio nagusia eskainiko dute Goikoplazan, 12:00tan hasita.

Gogoratu behar da erritu inizatibotik asko daukaten zazpi dantza edo joko dituela Axeri Dantzak. Hots: Aitarena, Zortzi-koa, Orratzakoa, Txingoa edo

Ilenia, Korrika, Perra Jartzea, eta, Borroka edo Dorrea. Dantzatik bezainbat daukate jolasetik, irrik, ziri sartzetik...

Ia laurogei axerik suge-gorri galanta bezain zirrarragarria marraztuko dute Goikoplazan jokotik jokora doazen paseoen eskutik, eta are ikusgarriagoak eta dibertigarriagoak suertatuko dira zazpi jokoetan ikusi ahal

izango diren uneak. Horietatik azpimarratzekoa da, Dorrearen jokoa, axeriak bost dorre osatzeko asmotan dabiltzala.

Herri dantza, indartsu

Pozgarria da ikustea zeinen indartsu agertzen den Adunan eta Andoainen errotuta dagoen herri dantza.

Dantzarien artean, 16 urte ditu gazteenak, ia 60 zaharrenak. Horrenbestez, euskal kulturaren eta folkloreak adierazle bizi-bizia izateaz gain, belaunaldi desberdinen arteko topagune bilakatu da azken urtetan.

IA LAUROGEI AXERIK SUGE-GORRI GALANTA BEZAIN ZIRRARAGARRIA MARRAZTUKO DUTE

1975ean berreskuratu zuten Lizar Makil taldeko dantzari eta txistulariek Adunako dantzari zaharren laguntzaz, eta egutegia erreparatuz gero, hain justu ere, urteurren biribila ospatuko du dantzak Andoainen 2025ean, mende erdia beteko baitu. Horri erantsi beharko zaio, bigarren urteurrena, hots, 25 urte beteko direla herriko emakumeak ere dantzaren parte bilakatu zirenetik. Andoingo axeri dantzariak, euskal folklore zaleek eta euskal kultur zaleek edukiko dute zer ospatua 2025ean, horrenbestez.

POZGARRIA DA IKUSTEA ZEINEN INDARTSU AGERTZEN DEN DANTZA ADUNAN ETA ANDOAINEN

MUJIKATOLARETXIPI ANAIAK
MAPFRE
ANDOAIN

Jai zorientsuak opa dizkizuegu

Eskola kalea, 8. ANDOAIN. 943 592 307. Faxa: 943 300 161. imujika@mapfre.com

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

SAN JUAN JAIK ANDOAINEN

Jaien jarraipena
ARGAZKIAK, BIDEOAK

www.aiurri.eus

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 22

ANDOAIN Argazki-erakusketa

Erakusketa kolektiboa, herriko argazkilarien eskutik.

Azken eguna: *Ekainak 30. Bastero.*

ANDOAIN Erakusketa

Koadroak ikusgai, hilabete osoan.

Ekainean. *Goiburu Golf Klub.*

ANDOAIN Oharra

Ubitarte eta Juanita Alkain lotzen dituen zubia moztuta izango da, gehienez ere igandera bitarte.

Alondegizubia.

URNIETA Deialdia

Pilotalekuak erabilera libre izango du ekainaren 22tik irailaren 1 arte.

Ordutegia: 09:00-21:00.

OSTIRALA 23

ANDOAIN Sanjuanak

Ekainaren 23tik 27ra Andoain jaietan murgilduko da.

Egitaraua, erdiko orritan.

IGANDEA 25

URNIETA Ipar martxa

Ultreia Martxa Nordikoa Kiroi Elkarrekin antolatuko duen probak 11.400 metroko ibilbidea izango du eta distantzia hori betetzeko lau itzuli eman beharko dizkiote prestatutako zirkuituari. Irteera eta helmuga San Joan plazan kokatuko dira.

10:30, San Juan plaza.

**URNIETA San Juan bezpera, aurtengoan San Juan plazan**

22:00etan bilkura egingo da San Joan plazan. Ordu laurden beranduago Urnietako Akelarre taldearen ikuskizuna ikusteko aukera izango da, eta 22:30ean berriz, sua piztuko da. Azkenik, egunari amaiera emateko erromeria izango da Txanbolin Txistulari Bandaren eskutik.

Ekainak 23, ostirala. San Juan plaza, Urnieta.

ASTEAZKENA 28

ANDOAIN Ipuin kontaketa

Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Udal Liburutegiak, elkarlanean, hiru ipuin kontaketa saio antolatu dituzte herriko hiru txokotan: Goiburun, Otietan eta Sorabillan. Lehena Goiburun izango da, Dorleta Kortazarren eskutik eta "80 amandre" izenburukoa. Bus zerbitzua udalerritik, 19:30ean. Helduei zuzendutako saioa da. *20:00, Goiburuko plaza.*

OSTEGUNA 29

ANDOAIN Bertso saioa

San Pedro egunarekin bat eginez, saioa Kaletxikiko Berrozpe kaperan. Bertsolariak: Aitor Mendiluze, Alaia Martin, Jon Mendiluze, Libe Goenaga, Nerea Elustondo eta Ion Beloki. Gai-jartzailea: Xabier Ariznabarreta. Jaien atariko izango da, izan ere, Frantziako Tourra dela eta jaiak atzeratu behar izan dituzte Kaletxikin. Uztailaren 7tik 9ra ospatuko dira jaiak. *Berrozpeko kaperan, 19:30.*

UDA ZINEMA KALEAN

**Hiru saio Andoainen, kale giroan**

Uda iristearekin batera, Andoaingo Udalak kale giroan hiru film emanaldi eskainiko ditu. Goikoplazan eta Etxeberrieta plazan eskainiko dira, eta euri iragarpenik izanez gero Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian eskainiko dira. Bigarren urtez jarraian filmak iluntzeko 19:00tan eskainiko dituzte.

Hiru pelikuletatik bat, euskaraz bakarria izango da. Aurtengo eskaintza:

- Uztailak 6, osteguna. Goikoplaza: "Los minions, el origen de Gru".
- Uztailak 12, asteazkena. Etxeberrieta Plaza: "Nora" (euskaraz).
- Uztailak 20, osteguna. Goikoplaza: "Tadeo Jones 3".



andoainDARRA
euskaraz

bertako
igogailuak | ascensores

HARRO!
www.bertako.eus



ANDOAINGO UDAL MUSIKA ESKOLAKO ABESBATZA

Disneyland Parisen kantari

Andoaingo Musika Eskolako hainbat gazte Parisko Disneylanden izan dira abesten. Ez ohiko ikasturte amaiera izan da Andoaingo gaztetxoentzat. Aurreko egunetan, jendaurreko emanaldiak eskaini zituzten

Bastero Kulturgunean. Etxekoen eta lagunen aurrean aritu ostean, Disneylandera abiatu ziren. Kantuan aritzeko aukera baliatu dute. Baina, horrez gain, gune magikoan murgiltzeko aukera izan dute.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Aritz Irazu Roman
 Aritzek ekainaren 29an 10 urte beteko ditu gure etxeko txiki-handiak. Muxu handiak etxekoen partetik. Ondo ospatu.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
 Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
 Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
 Udaltzaingoa: 943 300 819.
 Osasun zentroa: 943 006 670.

Zorion-agurrak Aiurriin

- www.aiurri.eus.
- diseinua@aiurri.eus.
- 619 163 537 (whatsapp bidez).



ZARATA

Hodei Arrastoaren LGBTI+ kolektibeari buruzko audiodigida

EKAINAK 30, OSTIRALA,
BASTERO

ANDOAINGO UDALA
Berdintasun lantsaila

Xerri Agirretxe-Lola
 Sankoa Dolly
 Tonia Ibarra
 Maider Larra
 Lura Ibarra

Inara Mujika
 Kimoz Renteria
 Aider Ibarra
 Naha Silero
 Geroi Urkole

BISITA EGITEKO ARGIBIDEAK:

- Bisitak ekainaren 30ean, ostiralarekin, izango dira, 17:00etatik 20:00etara (azkena 20:00etan sartuko da eta 20:45ean amaituko da).
- Guztiek ibilbide bera egingo dute, leku berean hasita, hamar gunetan barrena igarota beti hurrenkera berdinean.
- Audioak euskaraz zein gaztelaniaz entzun ahal izango dira.
- Mugikorra eraman behar da.
- Nahi izanez gero, parte-hartzaile bakoitzak bere entzungailuak eraman ditzake.
- Une batean (seigarren istorioan) esplizituki hitz egiten da praktika sexualari buruz, eta 18 urtetik gorakoei zuzendutako irudiak erakusten dira.

“Gure dantzek testuinguruan kokatzen laguntzen diote ikusleari ‘El caserio’ obran”

UXUE SANCHEZ LARRAÑAGA ETA UNAI IRAOLA URIBARRENA DANTZARIAK
Oviedon da Aukeran Dantza Konpainia, “El caserio” zarzuelarekin, XXX. Espainiako Antzerki Lirikoaren XXX. urteurrenean parte hartzeko

Alba Cabrera Jauregi URNIETA
Antzerki Lirikoaren XXX. urteurrena ospatuko da asteburu honetan Oviedon (Asturias). Hala, harantz egin du salto Aukeran Dantza Konpainiak, “El caserio” zarzuelan parte hartzeko asmoz. Astebete inguru daramate bertan, entseguetan sartuta, buru-belarri, emanaldi bikoitza egiteko: ostegunean, ekainaren 22an eta, larunbatean, 24ean. Konpainiako dantzari dira Uxue Sanchez Larrañaga eta Unai Iraola Uribarrena.
Oviedon harrapatzen zaituztegu, Espainiako antzerki lirikoaren 30. urteurrena dela eta.
Unai Iraola Uribarrena: Obra bat baino gehiago taularatu dira ospakizunaren harira. Horrela, “El caserio” zarzuelak itxiko du urteurrena.
Arrigorri kokatzen da “El caserio” zarzuela, zerekin egingo du topo denboran izoztutako herri horretan murgiltzen den ikusleak?
Uxue Sanchez Larrañaga: Baserri giroan, bikote baten maitasun istorioa kontatzen da.

U.I.U.: Horren harira, maiz agertzen dira euskal tradizioaren zantzuak, besteak beste, pilota, euskal dantzak...
Hiru ekitalditan banatzen da komedia lirikoak.
U.S.L.: Orotara, ordu eta erdi hartzen du obrak, gutxi gorabehera.
U.I.U.: Lehen zatiaren amaieran ateratzen da lehen aldiz zarzuelan Aukeran, azken eszenan, hain justu ere. Fandango bat dantzatzen dugu, eta, ondoren, bigarren ekitaldiaren hasieran, kide guztiak ateratzen gara, fandango eta arin-arinaren arteko nahasketa batekin.
U.S.L.: Hori egin eta gutxira, berriro agertzen gara, ezpata-dantzarekin, meza batean, prozesio antzeko batean. Gure parte-hartze osoa dantzatua da, eta gure dantzek testuinguruan kokatzen laguntzen diote ikusleari.
U.I.U.: Momentu batean, pilota-jokoan atera behar dira gutako hiru. Antzerkitik badu horrek, partida bat irudikatu behar dutelako, baina, orokorrean, dan-

tza da nagusi Aukeraneke kideak agertzen garenean.
XX. mende hasieran sortutako obra bat da “El caserio”. Gidoiari berrikuntzaren bat edo beste txertatu al zaio ehun urteren ostean?
U.S.L.: Edukiari, ideiarri dagokionez, ez nuke esango. Jatorrizkoaren pareko jarraitzen duela esango nuke.
U.I.U.: Madrildik hona ekartzean aldaketak izan ditu, baina ikuspuntu teknikitik, espazio bakoitzak dituen baliabideen eta azpiegituraren arabera.
Ez da zarzuela batean dantzatzen duzuen lehen aldia. Nola uztartzen da zuen dantza antzerkiarekin eta musikarekin?
U.I.U.: Ondo moldatzen gara. Egia da, tarteka, konplexua dela abesbatzarekin kooordinatzea, eta, gainera, zuzenekoetan beti egoten dira, emanaldi batetik bestera, desberdintasun txikiak. Beraz, horiei moldatu behar. Entsegu asko egin dituzue bi emanaldiei begira.
U.I.U.: Astebete inguru daramagu hemen entseguekin. Lehen hiru



Aukeran Dantza Konpainiako dantzariak, Muruamendiarekin batera. AUKERAN

egunetan, iluntzean izaten genituen entseguak, 20:00etan hasi eta 00:00ak arte. Era berean, goizetan, gure kabuz ere zenbait entsegu egin ditugu, teknika zorrotzeko. Laugarren egunean, atsedean hartu genuen eta Candas bisitatu genuen.
Ehun pertsonaren bueltan ari zarete elkarlanean ikuskizuna taularatzeko. Zaila al da horrelako kopuruekin lan egitea, koordinatzea...?
U.S.L.: Izugarritzko koordinazio lana eskatzen du, bai. Bi kide ari dira erregidore lanetan horretarako: pertsonaien sartu-irtena, musika, dantzak...
Gustuko al duzue beste arte diziplina batekin uztartzea zuen lana?

U.I.U.: Ez gaude ohituta horrela lan egiten, normalean, bakarrik igotzen garelako oholta gainera. Baina esperientzia polita izaten ari da.
U.S.L.: Beste mundu profesional batean murgiltzeko aukera izaten ari gara. Oso esperientzia aberasgarria izaten ari da.
Udari begira, emanaldiak izango al dituzue?
U.S.L.: Oraingoz, Euskal Herrian ditugu hitzordu guztiak. “Maurizia naz” emanaldia egingo dugu berriro ere, aspaldiko partez. “Hurrengo geltokia”-rekin ere igoko gara oholta gainera. Bestalde, orain gutxi “Aurri”-ren estreinaldia egin dugu.

LARRAMENDI BAZKUNAK ADMINISTRARIA BEHAR DU

BAZKUNAREN DIRUKONTUAK ETA ADMINISTRAZIOA KUDEATZEKO

Eskatzen da:

- Euskaraz lan egiteko erabateko gaitasuna izatea hitzez zein idatziz.
- Dirukontuak kudeatzeko aplikazio informatikoen erabilera ongi ezagutzea.
- Enpresa kudeaketa eta administrazio ikasketarik egin izana.

Baloratuko da:

- Gisa bereko lanetan izandako eskarmentua.
- Euskalgintzarekin lotura duten ekimen edo eginkizunetan lan egin izana.
- MLKB-eko bazkide izatea.
- Ingelesa edo frantseseko ezagutzarik izatea.

Eskaintzen da:

- Astean hamar orduko laneguna. Berehala hastekoa.

Aurkezteko epea:

- Curriculumak aurkezteko epea uztailaren 15ean amaituko da.

Bidali edo aurkeztu zure curriculum-a harrera@larramendibazkuna.eus helbidera edo helbide honetara:
Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. Dr. Huizi kalea, 15-1. 20140 ANDOAIN (656-782-521)

